

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 299/2019 Foru Agindua, urriaren 31koa, onartzen diona epez kanpo Aguraingo Udalari energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko laguntzen justifikazio dokumentazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaion energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2018-2019ko ekitaldirako deialdiari. Foru dekretu horren bederatzigarren apartatuan Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretua garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzen.

Urriaren 31ko 435/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen laguntzen adjudikazioa.

2019ari dagozkion gastuak gauzatzeko azken eguna uztailaren 19a izan zen.

Aguraingo Udalak, uztailaren 18an, herri horretako posta bulegoan erregistratu zuen ordainketa eskaera eta beharrezko dokumentazioa.

Ordainketa eskaerari erantsitako jarduketaren justifikazio memorian jasotzen denez, erosi dira eskatu diren lau (4) kale argiak, eta horren kale argi horien fakturak eta biltegiatuta zeudela erakusten duten argazkiak bidali ziren, baina bi (2) baino ezin izan dira instalatu, hilerriaren aldean daudenak. Kale argi batzuk baino ez jartzearen zergatia da haiek jartzeko lekuan "Aguraingo herrigune historikorako, eskola gunerako eta osasun zentrorako irisgarritasun eta apar-kaleku konponbideak" lanak egiten ari direla eta, zehazki, eremu horretan oinezkoen pasabidea egin behar dela, eta kale argiek ez luketela makinak pasatzen utziko. Era berean, aipatutako pasabidea jarri ondoren instalatuko direla adierazten dute.

Urriaren 4an enpresa instalatzaileak obraren amaierako ziurtagiria eta instalatuta dauden kale argien argazkiak erregistratu zituen Arabako Foru Aldundian.

2019an ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa 6.324,27 euro da.

9. oinarri arauan xedatutakoarekin bat etorritik, bidezkoa da, batetik, onartzea epez kanpo aurkeztutako justifikazio agiriak Aguraingo Udalak emandako arrazoiak kontuan izanik eta, bestetik, ordaintzea 2019an eman beharreko dirulaguntza, erakunde onduradunak jarduketaren kostua osorik justifikatu eta oinarrietako II. eranskinean eskatzen den gainerako dokumentazioa aurkeztu ondoren (fakturak, ziurtagiriak, dirulaguntzen eta dirusarrera pilatuen aitortpena ...).

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea epez kanpo Aguraingo Udalari energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko laguntzen justifikazio dokumentazioa, eta ordaintzea dirulaguntzaren 2019ko zenbatekoa, 6.324,27 eurokoa.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 31

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA